



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 24an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemeretzi uztailaren hogeita hiruan, Mikel Arregi Urrutia Alkate jauna mahaiburu delarik, Ruben Alberdi Uranga eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2019ko maiatzaren 16an buruturiko saioari dagokion akta.

2.- INSTANTZIAK

2.1) Arroabeko eskola berriko eraikinaren inguruko urbanizazioa egiteko kontratuaren aldaketa, udal bulego teknikoak eginiko txostenean oinarrituz. Ontzat ematen da Arroabeko eskola berriko eraikinaren inguruko urbanizazioa egiteko kontratuaren aldaketa. Guztira % 8,96-tako gehikuntza

2.2) Arroabeko eskola berriko eraikinaren inguruko urbanizazioari dagozkion 1., 2., 3., 4., 5., eta 6. zertifikazioen berri ematea. Ontzat ematea erabaki da.

2.3) L.M.Z.U.k, Lasaoerrekako bidea 6 zk.an duen ukuiluko teilatua eraberritzeko obretako udal baimena eskatuz. Aurrekontua eta Eusko Jaurlaritzak fibrozementua kentzeko eginiko planaren onarpena ere aurkezten ditu. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.4) Arteaga 6 zk.ko jabekideak, fatxada konpontzeko eta telebistako antena teilatuan jartzeko beharrezkoak diren lanak egiteko baimena eskatuz. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.5) M.H.k, Arbebidea 1 zk.an kokaturik dagoen K. etxearen sarrerako ateari eta atzeko garajeko ateari estalpea egiteko baimena eskatzen du. Ikusirik Arbebidea 1 zk.an kokaturik dagoen K. etxeko garajeko ateari dagoeneko estalpea egin diotela, eta tamaina handikoa dela, teknikari gaitu batek izenpeturiko dokumentazioa aurkeztu beharko da Zestoako Udalean honako dokumentuekin: memoria deskribatzailea, planoak eta aurrekontua.

2.6) V.H. eta M.H.k, Arbebidea 1 zk.an kokaturik dagoen K. etxearen inguruan eskaera ezberdinak eginez.

1.- Duela hilabete batzuk izandako sutearen ondorioz, egiten ari diren konponketa lanen udal-baimena eskatzen dute.

2.- Etxearen atzekaldean, garajeko atearen gainean, estalpea egin dutela adierazten dute. Bestalde, etxeko sarrera nagusiaren gainean ere beste estalpe bat egin nahiko lukete euriarengatik babesteko. Bi estalpe hauek egiteko udal baimena eskatzen dute.

3.- Ur-zikinak bideratzeko saneamentu sarrerik ez daukatela inguruan esaten dute.

4.- Etxerako sarrera nagusiaren aurrean ez zaiela tokirik geratzen esaten dute. Badirudi, auzokoaren autoak oztopatzen diela sarrera eta etxean larrialdiren bat gertatuz gero sarrera oztopatuta edukitzean, oso kezkatuak dauzka.

Ondorengo erabakiak hartu dira.

1.- Suteen ondorioz izandako kalteak konpontzeko egin behar dituzten obrentzat udal baimena eman ahal izateko, egin beharreko lanen aurrekontua aurkeztu behar da Zestoako Udalean.

2.- Etxeko garajeko ateari dagoeneko estalpea egin diotela ikusirik, eta tamaina handikoa dela egiaztatu ondoren, teknikari gaitu batek izenpeturiko dokumentazioa aurkeztu beharko da Zestoako Udalean honako dokumentuekin; memoria deskribatzailea, planoak eta aurrekontua. Sarrera nagusiko atearen gainean beste estalpea egin nahi bada, izango dituen neurri eta materialak zehaztuz planoak aurkeztu beharko da udalean.

3.- Uz-zikinen saneamentu sarerik ez dago inguru horretan, beraz, beste kasuetan bezala, etxearen jabeak iragazki biologikodun hobi-septikoa jarri beharko du.

4.- K. etxeak dituen bi sarrerak (sarrera nagusia eta garajeko atea) jabetza pribatuko partzeletara ematen dute. Jabetza publikokoak ez direnez, Udalak ezin du inolako baldintzarik jarri eremu horretan.

2.7) K.L. G.k, baimena eskatzen du E. baserria baino lehen, Zestoako Udalak daukan ur hornidurako kontagailu kaxatik, ur hornidura berria egiteko, beraien lursailera (ardientzat). Baimena eskatzen du baita ere, kaxan kontagailu berria jartzeko. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.8) E.E.O.k, Toribio Altzaga 20-22 zk.an duen dendaren aurrean dagoen estolda zuloa garbitzeko eskatzen du. Toribio Altzaga 20-22 zk.an dagoen dendaren aurreko estolda zuloaren garbiketa udal brigadaren lan zerrendan sartuko da eta lehenbailehen egiteko ahalegina egingo da.

2.9) Karmengo Amaren errepidea 6 zk., V.A. etxearen egoera. O.M. abokatuari gai hau eramateko aholkulari zerbitzuaren aurrekontua eskatuko zaio.

2.10) U.U.A.k Zestoako Udalerrian O. errearen ezker etxean egonkortasuna bermatzeko lanak eta dranatze sarea hobetzeko lanak, baimenaren berri ematen du. Berri eman da.

2.11) J.A.O.O.k, 05-012 partzelara tomarik egokienetik ura hartzeko baimena eskatzen du. Baimena ematen da E. baserria baino lehen, Zestoako Udalarena den ur-hornidura kaxan kontagailu berria jarri eta ur-hornidura zerbitzua emateko. Instalazioak, Zestoako Udaleko ur hornidura zerbitzuak ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Udalera ur-hornidura zerbitzuari alta emateko datuak bidali beharko dira.

2.12) J.U.A.k, Karmengo Amaren errepidea 12an duen txabolan portxea egiteko proposamena aurkezten du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

2.13) E.Z.O.k, Portale kalea 7ko Jabego Elkartearen izenean, Portale kalea 7an igogailua zero kotara jeisteko obretako udal baimen eskaera egiten du. G.F.A-ko Bide Azpiegituretako Departamentuak egin behar dituen obren berri eman da.

2.14) A.E.A.en idatzia, A. bideak urteetan sortu dizkieten arazoak direla eta, irtenbide egoki bat emateko, gaia berraztertzea eskatzen du. Astotxikibidea egonkortzeko aurrekontuak eskatu eta gune horretako arazoa aztertuko du Udalak.

2.15) Z.A.F.S.L.k, Uztapide 4 zk.ko jabekideen izenean, igogailua jartzeko obra zuzendaritza berriaren izendapena aurkezten du. Udalak baimena ematen du Uztapide 4 zk.an igogailua jartzeko eten ziren obrak berriz martxan jartzeko eta hasieran eman zen obra baimenaren baldintza guztiak beteko dira obrak martxan dauden bitartean.

2.16) M.O.Z.k, M. etxebizitzan aterpea egiteko baimena eskatzen du. Eskatzaileak lehen ere eskatu zuen M. etxebizitzan aterpea egiteko baimena, baina eraikin horrek eraikigarritasuna agortuta duenez, ezin da berak eskatutako aterpea egitea baimendu.

2.17) J.J.A.E.k, lur sail baten segregazio baimena eskatzen du. skatutako segregaziorako udal baimena ematea erabaki da, segregazioa egin ondoren, terrenoa bi zatitan banatuta geratuko da.

2.18) K.L.A.k, C.E.E.SL enprearen izenean, Lasaoko E. etxearen obra amaierako dokumentazioa aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea E. etxearen obra amaierako dokumentazioa.

2.19) C.T.V. ingeniariak (CTV Ingenieria), 2 proposamen tekniko aurkezten ditu S. baserriaren ondoan behientzat ukuilua egiteko. Gaur egun indarrean dauden Zestoako Arau Subsidiarioetan ezarriko baldintzak ez ditu betetzen S. baserriaren ondoan egitea proposatu duten ukuiluak; beraz, baldintza horietan Udalak ezin du obra baimenik eman.

2.20) A.E.A.ek, baimena eskatzen du 30 m²-tako txabola bat egiteko mantenu lanak egiteko, baso, baratza, etb., beharrezko diren tresnak gordetzeko, A. baserriaren inguruan. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazturiko baldintzen arabera.

2.21) N.E.D.SA enpresak, Sansinenea 3-4 sektorean obrak egiteko baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazturiko baldintzen arabera.

2.22) Arteaga 16 zk.ko jabekideek, obretako udal baimena eskatzen dute portaleko eskaileretan igotzeko aulki mugikorra jartzeko. Komunitateko bilerako akta gehitzen dute. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazturiko baldintzen arabera.

2.23) C.P.S.L. enpresak, baimena eskatzen du Sansinenean duen nabe industrialeko teilatuan 130 m²-eguzki plaka jartzeko. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazturiko baldintzen arabera.

2.24) P.A.A.k, O. enpresaren izenean, obretako udal baimena eskatzen du Iraetako Nausikoa industriagunean duten hiltegiaren teilatuan eguzki plakak jartzeko. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazturiko baldintzen arabera.

2.25) P.A.A.k, Okelgintza enpresaren izenean, obretako udal baimena eskatzen du Sansineneako industriagunean kokaturiko nabeko teilatuan eguzki plakak jartzeko. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazturiko baldintzen arabera.

2.26) J.E.G.k, U. baserriari EIT txostena egiteko salbuesteko eskaera aurkezten du. Ikusirik katastroak U. baserrian izendaturiko erabilera nagusia nekazaritza eta abeltzaintzakoa dela (608 m² nekazaritza/abelzaintza eta 104 m² etxebizitza), EIT txostena egiteko salbueste geratzen da.

2.27) J.A.O.k, E. baserrira ur hornidura sarea jartzeko eskatzen du. Idatzian adierazten da, hodia etxeraino jarrita dagoela; kontagailua eta presioa jeisteko aparatua jartzea eskatzen du. Udalak ur-kontagailua eta gaur egun mota honetako instalazioak jartzen dituen presioa jeisteko aparatua jarriko ditu E. baserriaren ur hornidura hartunean.

2.28) X.K.k, idatzia aurkeztu du Udalean, Euskalerria plazako norantza aldatua dagoela adieraziz, baina bertako aparkalekuak oraindik lehengo norantzan margoturik daudela gogoraraziz. Lurreko marren norantza aldatzea eskatzen du idatzian. Udal bulego teknikoak eginiko proposamena landuko du.

2.29) I.E.U.k, B. baserriari EIT txostena egitea ez dutela lortu adieraziz idatzia aurkeztu du Udalean. EITa egiteko finkaturiko epea luzatzea eskatzen du. Udalak ezin du legeak finkaturiko epea luzatu. Beraz, B. baserriaren EIT txostena 2 hilabeteko epean Zestoako Udalean aurkezteko eskatzen zaio jabeari.

2.30) A.An.B.k, idatzia aurkeztu du Udalean, San Isidro 16 zk.aren ondoan dagoen farola egoera txarrean dagoela adieraziz. Argiteri publikoaren arduradun den enpresari lehen ere intzidentzia honen berri eman zitzaion. Neurririk ez dutela hartu ikusita, berriz jakinaraziko zaie.

2.31) J.I.E.C.k, Karmengo Amaren errepideko 14 zk.aren ondoan (errepideko artzenaren ondoan) , 3 zuhaitz inauteko eskatzen dio udalari. Errepidea (N-634) Gipuzkoako Foru Aldundiko errepide sailak kudeatzen du. Beraz, Jose Ignacio Eizaguirre Churrucaren idatzia sail honetara bideratuko da.

2.32) Herritar batek, Endoiabidean jarri diren bionden inguruan idatzia aurkezten du. Eskerrak ematen ditu, bionda jartzeagatik, baina 2,00 metro-tako tartea utzi dela jarri gabe. Tarte honetan jartzea eskatzen du. Herritarra ez denez identifikatu, ezin zaio erantzuna bidali. Beraz, Udalak eskaera artxibatu egingo du.

2.33) V.U.k, Zaldi-eskolarako herribidea zuloz beterik dagoela adieraziz idatzia aurkeztu du. Adierazten du urteak daramatza eskaera berdina egiten, baina egunero zuloz-zulo ibili beharra daukatela. Zuloak konpontzeko eskatzen dio Zestoako Udalari. Udal bulego teknikoak eskaera landuko du, aurrekontuak begiraturaz.

2.34) A.I.L.k, Elizkalea 10 zk.ko jabekideen izenean, bertan eginiko lanen ondorioz (ur filtrazioak eta hezetasunak), Zestoako Udalak ordaindu beharreko kuota zein den adierazten duen idatzia aurkeztu du. Udalak bertan garaje bat eta lokal bat dituen, guztira 3.738,70 €ko kuota dagokio. Ordainketa egitea onartzen da.

2.35) T.U.A.k, Narrondo auzoko T. etxean balkoiak konpondu, pitzatuak tapatu eta eskailerak konpontzeko aurrekontua aurkezten ditu. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazturiko baldintzen arabera.

2.36) F.Mtez. D.P.k, San Isidro 14 zk.ko garajeko atea aldatzeko udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazturiko baldintzen arabera.

2.37) A.A.F.k, Gesalaga kalea 1eko Jabekideen izenean, Gesalaga 1 zk.an kokaturik dagoen eraikuntzaren ipar aldeko fatxada konpondu eta margotzeko proiektua aurkezten du, eta obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazturiko baldintzen arabera.

3.- PERTSONALEKO GAIAK:

3.1) ELA Sindikatuak, garbikuntzako sektorean soldata arrakalaren inguruko lanketa egin behar dutela eta, zenbait datu eskatzen dizkio Udalari. Udalari eskatutako informazioa dela eta, jakinarazten da aipatutako zerbitzu guztiak Udalak zuzenean kudeatzen dituela.

3.2) GFA Ogasun eta Finantza Departamentutik jasotako idatzia, udal langile bati soldaten bahitura kentzen zaiola jakinaraziz. Berri eman da.

3.3) Udaltzaingoaren oporrak direla eta udalak hartu duen erabakiaren berri ematea. Zestoako Udaleko udaltzainen oporrak ordezkatzeko langile bat kontratatu beharra dago. Lan-poltsetatik inor ez dagoenez, lehen ere udal honetan udaltzain gisa lan egin duen M^aK.I.E. kontratatzea ordezkapena egiteko.

3.4) Kiroldegiko langile bati orain dela aste batzuk egin zitzaion jardunaldiaren igoeraren azterketa. Aurreko legegintzaldian, A.A. K.ri %100eko lanaldiko kontratua egin zitzaion kiroldegiko hainbat lan eta kirol udalekuetako koordinatzaile lanak egiteko. Udalekuak amaitu direla eta, lanaldia % 50era igarotzea erabaki da.

4.- INSTANTZIAK, 2019ko uztailaren 16an eginiko Hirigintza Batzordean aztertutakoak:

4.1) J.L.E.A. jaunak, Arroa Beheko Artzubia aldea ibardiaren berreskurapen eta hobetze lanen inguruko kamioi erregistroa aurkezten du, 2019ko maiatzeko eta ekaineko hilabetei dagokiona.

Tokiko Gobernu Batzarrak, txosten teknikoa eta Hirigintza eta Pertsonaleko Batzordearen irizpena aztertu ondoren, erabaki du:

Arroa Beheko Artzubia aldeko ibarbidearen berreskuratze eta hobetze lanen 2019ko maiatzeko eta ekaineko hilabetei dagokion kamioi erregistroa jaso izanaren adierazpena egitea.

4.2) J.L.E.A. jaunak, Arroabeko Artzubia Aldea ibardiaren berreskuratze eta hobetze lanen proiektu osatua aurkezten du, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak eskatu bezala. Erabaki da ontzat ematea dokumentua eta betelanean guztizko kubikazioari dagokion ordainketa tasaren eguneraketa egitea, ondorioz, dagokion tasa ordaindu beharko du.

4.3) C.B.k, kexa aurkezten du, P. tabernan gauerditik aurrera ere musikaren bolumena handia dela-eta. Udalak tabernetako ordutegien eta musikaren bolumenaren inguruko oharra igorriko die P. tabernako arduradunei.

4.4) J.M.D.P.k (DPO Ingenieros), "A.S.L."ren ordezkartzan, Zestoako Estazioko Industrigunean "Bero bidez tratamendua eta piezak tratatzea"ren jarduera legeztatzeke udal baimena eskatuz. Eskaturiko udal jarduera lizentzia ematea erabaki da. Horretarako hainbat baldintza eta neurri zuzentzaileak ezartzen dira.

4.5) M.A.M. andereak, Gesalaga kalea 1 behean telak eta mertzeriako gaiak saltzeko eta arropen konponketak egiteko jarduera burutzeko aurretiazko komunikazioa aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea aurkeztutako dokumentazioa. Bide batez, gogoraziko zaio ekainaren 24an Udalak eskatu zuen dokumentazioa oraindik ez duela aurkeztu.

4.6) I.S.I.k, aipaturiko egun eta orduetan, A. enpresatik 85 dBko zarata ateratzen zela jakinarazten du. A.T.T.S.L. enpresa jardueraren legeztatzea tramitatzen ari da. Legeztatze prozesu horren baitan, enpresa homologatu batek egindako zaraten neurketa eskatuko da. Jardueraren tramitazioan sortu daitezkeen arazoak ekiditeko, enpresaren arduradunarekin harremanetan jarriko da Udala. Bilera honetan, zarataren arazoa konpontzeko eskatutako zaio jardueraren titularrari.

4.7) I.S.I.k, aipaturiko egun eta orduetan, A. enpresatik 85 dBko zarata ateratzen zela jakinarazten du. A.T.T.S.L. enpresa jardueraren legeztatzea tramitatzen ari da. Legeztatze prozesu horren baitan, enpresa homologatu batek egindako zaraten neurketa eskatuko da. Jardueraren tramitazioan sortu daitezkeen arazoak ekiditeko, enpresaren arduradunarekin harremanetan jarriko da Udala. Bilera honetan, zarataren arazoa konpontzeko eskatutako zaio jardueraren titularrari.

4.8) F.P.A.k, gaueko 9:00-11:00 bitartean, A.SL enpresa oso zarata maila altua emititzen dela jakinarazten du, 90 dB gaindituz. Ez dela lehenengo kexa azaltzen du, eta udal agintari berriei eskatzen die hartu ditzatela neurriak gai honen inguruan. A.SL enpresa jarduera baimena tramitatzen ari da Zestoako Udalean. Tramitazio prozedura honen barnean, soinu neurketak eskatuko zaizkio A.SL enpresari, enpresa homologatu batek eginak, eta makinaria %100 martxan dutela.

4.9) N.L.A.k, Arroa Beheko auzotarrek azkeneko hilabetetan ikusi dute kanpoan aparkatzen dituzten autoak herdoilez josita azaltzen direla. Suposatzen dute inguruan duten fundizioen batetik datorrela. Horrek suposatzen du, baita ere, arnasten duten airea kutsatuta dagoela. Jakinaraziko zaio Udala Udala Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin harremanetan dagoela eta irailean kabina jarriko dela. Bestalde, gai honen inguruan Udal honetan jasotzen diren kexa guztiak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari igorriko zaizkio

4.10) J.I.A.E.k, aurkezturiko idatzion dio Arroabeko auzotarrak azkeneko hilabeteetan kanpoan aparkatzen dituzten autoen herdoil pinportak dituztela. Jakinaraziko zaio Udala Udala Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin harremanetan dagoela eta irailean kabina jarriko dela. Bestalde, gai honen inguruan Udal honetan jasotzen diren kexa guztiak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari igorriko zaizkio

4.11) J.J.E.k, orain arte ura manantial batetik jaso izan dutela dio. Batzuetan ur gutxi izante dela eta herriko ura nahiko luketela adierazten du, M., I. eta Z. baserrietarako. Bestalde, laguntzarik dagoen jakitea nahiko luketela esaten du. Udalak ez du laguntzarik hori egiteko eta Udalak aztertuko du lan hori egiteak izango lukeen kostua.

4.12) R.O.E.k, Iraetan udalak duen lur sail bat erabiltzeko baimena eskatzen du. Lehenengo garbiketa egingo luke, zabor eta sasiak jasota. Ondoren, belar berria aprobetxatu eta pare bat poney ipiniko lituzke terrenoa txukun mantentzeko. Udalak lurra beharko lukeenean, utzi egingo luke. Hirigintza araudiaren baitan, udal lur publiko hori partikularrei uztea ezinezkoa da.

4.12) G.L.S.L.k, jarduera sailkatuaren espedientea eta obrako exekuzio proiektua aurkezten ditu Sansinenea industrigunean duten nabe industrialak barrutik berritzeko. Ondorengo erabakia hartu da: Jarduera sailkatuentzat ezarritako tramitazioari ekitea, lizentzia eskaera jendaurrean jartzeko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera igorri, osasun arloko txostena eskatuz eta kokaguneko aldamenekoei jakinarazpenak bidaliz. Jakinaraziko zaio jarduera baimena izan arte, ez dela obra baimena tramitatuko.

1.13) N.Z.k, azaltzen du Udalak oraintsu San Juanen dauden eskailerak konpondu dituela. Eskailera horiek belarra dagoen bidexka baera ematen dute, baina, kontutan hartu behar da euria egiten duen bakoitzea, lurra busti eta lokatzez betetako bidea bihurtzen dela. Beraz, bide horren erabilgarritasuna mugatua da. Horrela, aurrez aipatutako arrazoiak direla medio, eta bidearen erabilgarritasunak eguraldiak berak ez baldintzatzearen, harlauzez egindako bidexka bat jartzea eskatzen du. Udalak aztertuko du brigadak egin beharreko lanetan sartzeko moduko lana den.

4.14) A.E.A.n idatzia, A. bideak urteetan sortu dizkioten arazoak direla eta, irtenbide egoki bat emateko, gaia berraztertzea eskatzen du. A. egonkortzeko aurrekontuak eskatu eta gune horretako arazoa aztertuko du Udalak.

4.15) A. y U.S.A. eta C. y R.U. S.L. enpresek osaturiko UTEak, kiroldegiko obrak amaitu direla jakinaraziz idatzia aurkeztu zuten 2019ko maiatzaren 28an, eta Zestoako Udalari eraikina jasotzeko eskaera egiten dio. Eraikina jaso geratzen da Udalaren aldetik.

4.16) Z.A.F.S.L.k, Uztapide plaza 4ko bizilagunen izenean, adierazten du hainbat bizilagun kexatu egin direla kiroldegiko erabiltzaileek duten kristaldegia dela eta. Kontretuki bizikleta estatiboak erabiltzen dituzten kristalak Uztapide plaza 4ko fatxadaren parean dagoelako, eta deserosoa suertatzen delako balkoira irten eta etengabe begiratuak izatea. Horrela, kontutan hartzea eta gai honen inguruan neurriak hartzea eskatzen dute, hala nola kristaldegian biniloak jartzea. Zestoako kiroldegi berriko ekipamendua oraindik ez dago martxan eta kiroldegia irekitzerako, Udalak aukera ezberdinak aztertuko ditu.

4.17) S.G.E.k, Arroabeko jolastokian zenbait konponketa behar dituela jakinarazten duen idatzia aurkezten du. Arroabeko jolastokian konponketak egin dira 2019ko ekainean eta uztailean.

4.18) J.M.O.A.k, Arroagoiko auzokide batzuen izenean, orain dela 26 urte etxebizitza berriak eraikitzen hasi zirenean Arroagoian, udalekoekin adostasun batera iritsi ziren urbanizazioa bizilagun berriek egin eta kale-argiak jartzeko; auzotarrak bertan gelditu eta bizitza emateko auzoari. Horrela izan da auzoan egin diren etxe guztietan, urbanizazioa bizilagunen kontu eta kale-argien mantenimentua Udalaren kontu. Jakinaren gainean daudela hitzezko akordio bat izan zela, baina 20 urtean egon eta gero moztu omen zaie akordioa inolako arrazoirik gabe. 2014ko maiatzaren 22ko datarekin bizilagunei jakinarazi zitzaizen ondorengoa:

“Arroa Goiko zati batean dagoen argiteria publikoan ematen diren egoera, kokapen eta argiztapen gune ezberdinen azterketa burutu da Udalaren aldetik. Azterketa horren ondorioz, agindar sare publikoa ibilgailu eta oinezkoen ibilbideak, egonleku eremu urbanizatuak eta eraikin publikoen sarbideak argiztatzera soilik mugatzea erabaki da. Udalak 2014 urtean harturiko aipatutako erabakia berrestea erabaki du.

4.19) K.A.k, Arroa Behean, eskola txikiko urbanizazioaren obra egiterakoan, eurik urak egoki dagoen estolda zulara ez direla bideratu dio. Zulo horrek, ingurutik iristen zaion ur guzti hori jasotzeko gaitasunik ez omen du, eta gainezka egiten du inguruko lokaletara ura sartzen delarik. Gainera, estoldaren tapa hormigoiarekin hartuta dagoela eta ez dagoela irekitzerik dio. Guzti horrengatik, saneamendu sare hori berrikustea eta euri-urei irtenbide on bat ematea eskatzen du.

Arroabeko eskola berriaren urbanizazio lanak egin dituen enpresa eraikitzaileari San Isidro 1 zk.aren atzekaldean dagoen estolda zuloari jarraipena egiteko esan zaio, batez ere euria ari duenean. Jarraipen bat egingo da, euri-uren saneamentu sareak urak egoki bideratzen dituen edo ez konprobatzeko. Bestalde, momentu honetan ireki ezin den saretaren tapa, irekitzeko moduan jarriko da.

4.20) M.K.S.k, 2019ko maiatzaren 10ean udaletxeko sarreraren atearen aurrean irrist egin zuela eta erori ondoren belauneko rotula hautsi zuela azaltzen du. Horren harira, udaletxeko arkupetako zoruak lehentasuna behar duela dio; oso labainkorra omen da, batipat hezetasun apur bat dagoenean, eta uste du sarriago garbitu beharko litzakeela edota aldatu. Ondorengoa jakinaraziko zaio: Udaletxe azpiko zorua, ekitaldi bat egiten den bakoitzean garbitzen da. Baita ere, kale garbitzaileak egunero errazten du eta garbiketa bat behar dela ikusten duenean, udal brigadakoek presioko mangerarekin beharrezko garbiketa egiten dute. Dena den, garbitzaileek jarraipen berezia egingo diote. Azpimarratu behar da, hezetasun handia dagoen egunetan, ezin dela ekidin zorua ohikoa baino umelagoa egotea.

3. BATZORDE INFORMATIBOETAKO AKTAK

- 2019ko uztailaren 18an, Ogasun Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2019ko uztailaren 24an, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.

4.- ALKATETZA EBAZPENAK. - Hurrengorako utzi dira.

5.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK

- Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako udalerrietan kokaturiko ikastetxe desberdinetako lehen hezkuntzako ikasleei logopedia zerbitzua eskaintzea xede duen kontratua amaitutzat eman eta kontratua urtebetez ez luzatzeko erabakia.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamenduak, 201-DES1-000001-01 dirulaguntza eskaera dela eta, hamar eguneko epean faktura xehatuak aurkezteko eskaera egiten du.

- Ura Ur Agentziak, Arroa Goikoa barriatua z/g-an, Larrondo ibaiaren eskuin ertzean Bidegi S.A.ren pabiloi bat eraisteko lanen jakinarazpena igortzen du.

- Donostiako Gotzaindegiak, 2019ko uztailaren 1etik aurrera, Donostiako Gotzaindegiak izango duen edozei jakinarazpenetarako helbidea Heriz pasealekua 82 (20008 Donostia) izango dela jakinarazten du.

- Arartekoak, 2551/2017/QC kexa espedientea artxibatzea erabaki duela jakinaraziz, herriko ikastetxean igogailua jarri behar dutela eta.

6.- GALDERA ETA ERREGUAK

Alkateak adiera du orain arte Gobernu Batzordeetako bilerak hirigintza batzordearen ondoren egin izan direla, baina beti presaka. Legegintzaldi honetan Gobernu Batzordeari funtzio edo eduki gehiago emateko asmoa dagoela gehitu du, gaiak aztertzeke eta oposizioarekin gaiak lantzeko helburuarekin.

Bestalde, elkarrerantzun ofizialen artean berri eman da, Arartekoak artxibatu egin duela Zestoako eskolako irisgarritasunari buruzko guraso batek egindako kexaren espedientea, kontuan izanik, Hezkuntza Sailak eskolako handitze obren baitan igogailua jarri behar duela adierazi duelako. Gai honi buruz, Alkateak adierazi du eskolaren kanpoko irisgarritasunak ere arazoak dituela eta aukera desberdinak aztertu behar direla. Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sailarekin bilera bat egiteko asmoa agertu du Alkateak, San Juan alderako sarreran errotonda bat egiteko aukera aztertzeke eta egungo errepidea soterratzeko aukera aztertzeke.

Ondoren, G.k kiroldegiko langile baten jornada handitzeaz galdera egin du. Alkateak adierazi du, aurreko legegintzaldian, M.I.n murrizketa ordezkatzeko A.As. kontratatu zela eta gero kiroldegiko obrak sortarazitako lan gehigarriak eta kirol udalekuak direla-eta, jornada handitu zitzaioela. G.k erantzun du antolaketa hobetu beharra dagoela. Alkatea ados agertu da eta gehitu du A.A.k udazkenetik aurrera errelebo kontratua eskatuko duela adierazi duela. G.k esan du zerbitzua eta garbiketa antolaketa hobetu beharra daudela. Alkateak adierazi du kiroldegiko langileekin bilera bat egingo dela gaia aztertzeke.

G.k hartu du hitza eta kultura mahaia aipatu du, kultur azpiegiturentzako eraikin baerri bat, etorkizuneko aurreikuspenarekin beharrezkoa dela adieraziz. Gai hauek kudeatzeko kultura teknikaria ez dela nahikoa gaineratu du. Antzerki taldearen proposamena ere interesgarria dela adierazi du. Alkateak erantzun dio Elizondo berritzea ere aipatu izan dela eta zer den egingarria ere aztertu behar dela aurrekontuak kontutan hartuta. Bestalde, urbanistikoki aukerak murriztak direla gehitu du.

N.O.k erantzun du azntzerki asteen bakarrik betetzen dela gaur egungo aretoa. G.k dio gaur egun ez dagoela toki egokirik. Alkateak adierazi du TS gunea ere hor dagoela eta G.k esan du horrek oso luze joko lukeela. Alkateak dio TS eremua sorkuntza eraikin bat izan daitekeela. G.k, aldiz, gunehori pop-rock ekimenetarako egokia izan daitekeela, baina herri gunean talde gehiago daudela.

Alkatearen esanetan amaitu berri den kiroldegiko obran ere aukera bat galdu da, bertan azalera handia dagoeko eta kirol jardueraz gain beste gauza batzuetarako tokia ere egokitu zitekeelako. Bestalde, kultur mahaia instituzionalizatzea ere arriskutsua izan daitekeela ohartarazi du eta kiroldegiko obretarako parte hartze prozesu bat egin behar zela gehitu du.

Azkenik, gauean egingo den Udal Batzarrean hondakinen sistema aldatzeko 2016an hartutako erabakia bertan behera uzteko erabakia aipatu du.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko 15:30ak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue

Idazkaria,

O.e

Alkateak,